

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Indiako anabasa genetiko

HARVARD MEDICAL SCHOOL-EKO (AEB) David Reich ikerlaria Indian dagoen populazioaren nahaste-borrastea aztertzen ari da. Indian kasta ugari daude, eta bertako konstituzioak hamazortzi hizkuntza onartzen ditu. Hala, ikerlariak 25 talde etnikotan azterketa genetiko egin zuten, indiarren jatorriari buruz zerbait gehiago jakin nahian.

Guztira 132 lagun aztertu zituzten, eta 560.000 aldagai genetiko aurkitu. Gene-patrimonio zabal horretan bi multzo nagusi bereizi zituzten: batetik, iparraldetik edo Eurasiatik datozenak eta hizkuntza indoeuroparren bat hitz egiten dutenak (hindia, sanskritoa...), eta bestetik, hegoaldeko datozenak eta inolako herrialderekin loturarik ez dutenak.

Kasten sailkapenean argi eta garbi ikusten da jatorria Eurasian dutenak direla aberatsenak. Hala ere, indiarren bi familia handiak nahastuta ageri dira dagoeneko. Beste alde batetik, endogamia oso handia duten populazio isolatuak sortu dira Indian; ondorioz, gaixotasun hereditario kopurua asko hazi da eta horrela segituz gero etorkizunean arazo larria izan daiteke.



Ura dago Ilargian?

APOLO MISIOAK ospetsuak izan ziren joan den mendean, Ilargira ailegatu zirenak batez ere. Apolo ontziek ekarritako laginak aztertuta, Ilargian urik ez zegoela ebatzi zen, edo hobeto esanda, laginetan azaldutako ur arrastoak Lurretik eramandakoak izan zirela.

Berriki beste hiru azterketa egin dira, eta hirurak bat datoz Ilargian hidrogenoa eta oxigenoa egon badaudela. Ura osatzen ote duten, edo besterik gabe hidroxiloa (OH⁻), ezin da ziurtatu oraindik, baina urik ez badago ere, Ilargian dauden materialekin sortu daitekeela ziurtasunez baieztatu dezakegu. Aurkikuntza garrantzitsua da hori, ezbairik gabe, datozen urteetan egingo diren Ilargirako bidaiak planteatzeko garaian.



Atzazalen osasuna, hezetasunaren arabera

Manchesterreko Unibertsitateko ikerlari talde batek hezetasunaren eta atzazalen osasunaren arteko erlazioa aztertu du. Badirudi %55eko hezetasun erlatiboa dagoenean atzazalak primeran daudela; hortik behera, hauskorrakoak dira, eta hortik gora malguagoak <http://ttiki.com/6640> (Gaztelaniaz)

Pinuek ongi jasango dute berokuntza globala

Duke-ko Unibertsitatean hamabi urtez eduki dituzte pinu batzuk CO₂ kontzentrazio handia zuen atmosfera batean. Pinu horiek ekoiztutako hazi kopurua baldintza normalean dauden bi halako izan da, eta hazien kalitatea berdina. <http://ttiki.com/6641> (Gaztelaniaz)

Hedatze-uhinek, zeharka jota ere, garuna mindu dezakete

Buruan kolpea hartuta garuna kaltetu daiteke, eta berdin hedatze-uhin batek zuzenean jotzen bagaitu. Baina hedatze-uhinek zeharka jotzen dutenean ere kaltegarriak izan daitezke. Gaiari buruzko azken ikerketei esker asko hobetu liteke kaskoen diseinua. <http://ttiki.com/6642> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16